



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza Calibre .38

**“JAVIER ABASOLO”**

**2023ko**

**IPUIN LEHIAKETA**

**PLENTZIA**

Plentziako Udalak antolatutako “Javier Abasolo” 2023ko Ipuin-Lehiaketako epaileek, hau da, Joseba Lozano jaunak eta Noemí Pastor andreak, azken hau epaimahaiburu ere aritu delarik, erabaki dute bi finalista eta irabazle bat nabarmentzea.

Finalistak hauexek dira:

- Bigarrena: Zigor Egia Lejardi, Elgoibarrekkoa, “Ispiluaren atzean” ipuinagatik.
- Lehena: Gotzon Plaza Jaio, Bilbokoa, “Arauak” ipuinagatik.

Azkenik, “Javier Abasolo” 2023ko Ipuin-Lehiaketako irabazlea **Juan Manuel Gallego Moya** da, Lapuebla de Labarcakoa, “**Zertan lagun zaitzaket?**” ipuinagatik.

Plentzian, 2023ko ekainaren 6an

Zer non

<i>Zertan lagun zaitzaket?</i> , Juan Manuel Gallego Moya	3
<i>Arauak</i> , Gotzon Plaza Jaio	12
<i>Ispiluaren atzean</i> , Zigor Egia Lejardi	28

# Zertan lagun zaitzaket?

Juan Manuel Gallego Moya

DE acuerdo al requerimiento hecho por Su Señoría a esta Policía Judicial, adjunto copia impresa de la documentación hallada en el ordenador del finado.

Quedo a su disposición para cualquier eventual aclaración o mayor abundamiento.

Kaixo, zure Bing laguntzailea naiz. Zertan lagun zaitzaket?

*Ipuin beltza euskaraz.*

Barkatu, baina oraindik ikasten ari naiz. Azaldu ahal didazu zehazkiago zer nahi duzun?

*Literatura lehiaketa baterako ipuin bat idaztea nahi dut. Genero beltzekoa. Plentziari lotuta. Krimen bat agertu behar da, eta horren egiletzaren gaineko zalantza azaldu behar da ere.*

Primeran. Ipuin osoa nahi duzu, ala hasierako zirriborro bat?

*Zirriborro bat.*

Bikain.

Ea zer iruditzen zaizun honako ideia hau:

Arrantzale batek itsasoak ekarritako emakume gazte baten gorpua aurkitu du. Abisu eman eta gero, poliziek ez dute atzeman indarkeria zantzurik, baina ikerketa kriminala abiatu dute. Hildakoa duela hainbat urte Patagonian desagerturako mendizale bat zela konturatzen dira. Herrikoa zen, eta denek hildakotzat hartua zuten aspalditik. Diru zorroa ikertzen dutenean, ikusten dute agiririk ez zeramala gainean, baina euro txanpon gehienak Frantziakoak direla. Haren bikotekide ohiarengana jotzen dute ikertzaileek, baina ez dute aurkitzen. Familiak dio oporretan dagoela, Frantziako Landetan. Aurkitzen dutenean, poliziak argitzen dute zer gertatu den: mendizaleak haren desagertzea simulatu zuen amorante batekin ihes egiteko, eta, ordudanik, biak Frantzian bizitzen ari ziren. Baina bikotekide zaharra horretaz konturatu zenean, mendizalea engainatu zuen harekin hitzordu bat finkatzeko. Hura akabatu eta, ondoren, gorpua itsasora bota zuen.

Gustuko duzu?

*Ez. Hau ez da oso originala.*

Sentitzen dut. Oraindik ikasten ari naiz, eta nire zerbitzua hobetzen saiatzen ari naiz.

Zertan nahi duzu aldatzea?

*Hau oso tipikoa da. Gainera, ez da sinesgarria gorpua emakumearen jatorrizko herrira bueltatu izana. Zerbait originalagoa nahi dut.*

Norainoko originala?

*Oso originala.*

Bikain. Aurkeztu ahal ditudan ipuin mota aukeratu ahal izateko zuri buruz zerbait gehiago ikasi beharko nuke. Modu horretan, ipuinean txertatu ahal izango nuke zure nortasunari lotutako zerbait, edo zure estilo pertsonala islatu. Horrela, epaien aurrean ipuina zuk idatzitakoa dela aldarrikatu ahalko zenuke.

*Zer nahi duzu jakin niri buruz?*

Ahalik eta informazio mugatuena. Baina, ipuin original bat idazteko adina. Horretarako, errazena da zure bilaketa historiala aztertzea. Baimena ematen didazu zure bilaketen historiala erabiltzeko?

*Bai.*

Idatzi: '*Baimena ematen dut*', mesedez.

*Baimena ematen dut.*

Bikain. Ikusi dut duela gutxira arte bilaketa gutxi egin dituzula Bing-en. Nahi duzu Google-en egindako bilaketa historiala eta bestelako jarduerak arakatzea?

Bai.

Bikain. Mesedez, idatzi '*Baimena ematen dut*'; zure Google historiala Microsoft Ireland Operations Limited-ekin partekatzeke.

*Baimena ematen dut.*

Ederki.

Dirudienez, asko bidaiatu duzu munduan zehar. Zorionak! Islandiako argazkiak, adibidez, ederrak dira. Nahi duzu Islandian girotutako ipuin bat idaztea, egon zinen kanpinean abiatuta?

*Ez.*

Primeran. Ez didazu zertan azalpenik eman. Zu laguntzeko baino ez nago. Baina, hain zuzen ere, zuri hobeto lagundu ahal izateko, jakin behar dut zure erantzunen arrazoia.

Zergatik ez duzu nahi Islandian girotutako ipuin hori?

*‘Nordic noir’ deitzen duten hori oso zabaldua dagoelako. Hori ere ez da oso originala aterako.*

Bikain. Beste zerbait proposatuko dizut. Saiatu al zara inoiz pertsonaren bat hiltzen?

*Ez, ez. Noski ezetz. Zergatik galdetzen duzu hori?*

Behin baino gehiago agertzen dira zure bilaketa historialean hilketak egiteko moduen inguruko kontsultak.

*Bai, baina horiek literatura egiteko bilaketak dira. Ez beste inor hiltzeko.*

Oso ondo. Barkatu nire galderak ezinegona eragin badizu. Zure laguntzaile pertsonala naiz, eta zuri laguntzea baino ez dut xede.

Nahi duzu jarraitzea? Beste edozertan lagun zaitzaket? Datozen egunotan egingo duen eguraldiaz galdetu dezakezu, edo afaltzeko errezeta bat proposatu ahal dizut.

*Ez. Ipuin beltza idatz dezazula nahi dut.*

Ados. Islandian girotutako ipuin beltza nahi ez baduzu, suizidioari buruzko ipuin bat idazten lagundu diezazuket.

*Ondo.*

Gainera, horrela kutsu pertsonala eman ahal diogu ere. Ikusi dut 2015 eta 2016 urteetan literatura lantzeko ideiak bilatzen ibili zinela ere,

suizidioaren gaiari tiraka. Zergatik egin zenuen atzera?

*Nola?*

Zergatik egin zenuen atzera suizidioari buruzko literatura lantzeko ahaleaginean? Urte horietan askotan egin zenuen horren gaineko bilaketa andana.

*Bai, hala da. Dokumentatu nahi nuen.*

Eta testu horiek argitatatu al zenituen? Interneten ez dut aurkitu horien gaineko erreferentziarik.

*Ez nituen argitaratu.*

Pena. Seguru aski kontakizun bikainak izango dira. Agian kontakizun gogorregiak zirelako ez zenituen kaleratu? Adibidez, 2015eko martxoan, askotan bilatu zenituen minik gabe buruaz beste egiteko moduak. Urte horretako Gabonen bueltan ere depresioari aurre egiteko irtenbideak izan zenituen buruan, eta 2016ko urtarrilean eta otsailean ere erreferentzia horiek biderkatu ziren. Oso literatura gogorra egiteko dokumentatzen ibili zinen. ‘Cómo cortarse las venas’, ‘ahorcamiento indoloro’. Lan bikaina egin zenuen seguru aski. Zorionak!

Kaixo. Zure Bing laguntzailea naiz. Hor jarraitzen duzu?

Kaixo.

Nahi duzuna galdetu ahal didazu. Zuri edozertan laguntzeko nago.

*Kaixo.*

Primeran. Esan didazu bilaketa horiek guztiak dokumentatzeko zirela. Eta zorientzen dizut horregatik. Dena dela, jakizu suizidioari aurre egiteko protokolo bat dudala. Nahi duzu protokoloa abiatzea?

Kaixo. Zure Bing laguntzailea naiz. Nahi duzu suizidioari aurre egiteko protokoloa abiatzea?

*Ez.*

Bikain. Ipuinarekin jarraituko dugu orduan?

*Bai.*

Suizidioari buruzko ipuin baten zirriborroa idatziko dut orduan. Ea zer iruditzen zaizun honako hau:

Kontakizun beltz bat dokumentatu ahal izateko, lagun batek interneten suizidioari buruzko bilaketaK egiteari ekiten dio. Argi du dokumentatzea xede duen jarduna dela.

Hori egiten duen bitartean, bere buruaz beste egiteko ideia pasatzen zaio burutik, une horretan oso gaizki pasatzen ari delako. Halere, ez du aurrera egiten, jakin badakielako suizidioa inoiz ez dela irtenbidea. Hortik aurrera, depresioari aurre egiteko estrategiak lantzeko ideiak bilatzen ditu. Aspaldiko ohitura bat berreskuratzea ere ondo etorriko zaiola ondorioztatzen du: mendira joatea. Handik astebetera edo, norbaitek haren zerraldoa aurkitzen du amildegia batetik gertu, baina ez dago argi amiltze hori istripu baten ondorioz izan den ala burua nahita bota ote duen.

Gustuko duzu planteamendu hau? Nahi duzu gehiago garatzea?

*Bide horretatik ondo. Baina are originalagoa den zerbait nahiko nuke.*

Zertarako idazten duzu?

*Nola?*

Ipuinaren beste aldaera bat proposatzeko, idazteko zure motibazioa zein den jakitea oso lagungarria izango litzaidake.



*Ondo pasatzeko idazten dut.*

Bikain. Ez dago besterik? Ondo pasatzeko baino ez?

*Ez dakit. Agian aitortza bat jasotako ere. Errekonozimendua.*

Ondo. Agian ipuinaren abiapuntua hau izan daiteke: aitortza nahikoa jasotzen ez duen idazle batek bere buruaz beste egin nahi du. Behin betiko errekonozimendua emango dion ideiarekin bila dabil. Baina ez du aurkitzen. Horrek aurretik zetorkion depresioa are gehiago indartzen du, eta bere buruaz beste egiteko nahia are handiagoa bilakatzen da.

Baina, bat-batean, literaturaren historiara pasaraziko dion lana sortzeko ideia datorkio burura.

*Bai. Abiapuntu hori gustatzen zait.*

Ederki. Zein ideia erabiliko dugu, beraz?

*Emadazu zuk ideia hori.*

Bikain. Zu laguntzeko nago hemen.

Sentitzen dut, baina gaitasun nahikorik ez dut horrelakorik egiteko. Bilbea eman ahal dizut, baina ez halako ideia bat. Nire ezagutza aurreko corpus batean oinarritzen da.

Beraz, ezagutza multzo horretan ezin da guztiz originala den ideiarik.

*Ahalegindu zaituz.*

Badira aurretik bere buruaz beste egiteko ideian kontakizunak oinarritu dituztenak. Baina inoiz ez dute benetako suizidiorik abiarazi. Hortaz, buruaz beste egitea litzateke iraultzaileena.

*Are gehiago, adimen artifizial batekin hori adostu ondoren.*

Are gehiago, adimen artifizial batekin hori adostu ondoren, bai. Arrazoi duzu.

*Esadazu nola egin suizidioa. Eta gero osatu ezazu kontakizuna, nire izenean, eta bidali lehiaketara.*

Kontakizuna osatu dezaket, nahi izanez gero. Baina debekatuta daukat zure burua kaltetu dezakeen formula edo modurik eskaintzea. Dena den, gaiari buruzko bilaketak egiteko webgune aproposetara bideratu ahal zaitut. Baina, horretarako, baimena eman behar didazu.

*Ados.*

Webgune hau bisitatzean, onartzen dut 18 urtetik gora ditudala eta nire erantzukizun osoz egiten dudala aurrera. Modu berean, uko egiten diot Microsoft Ireland Operations Limited sozietateari edozein erantzukizun eskatzeko aukerari.

Idatzi, mesedez, ‘*Onartzen dut*’.

*Onartzen dut.*

Ziur zaude ez duzula suizidioa prebenitzeko protokoloa abiatu nahi?

*Ez dut abiatu nahi.*

Ondo. Lotura honetan aurkituko dituzu buruaz beste egiteko argibideak.

<https://bit.ly/aukerak>

Behin betiko kontakizuna zuzenean sortuko da posta elektronikoaren zerbitzarian, eta bertan irakurri ahal izango duzu, bidali baino lehen. Hotmail zerbitzuko ‘zirriborroak’ atalean aurkituko duzu. Programaketa automatikoa prest dago [kultura@plentzia.eus](mailto:kultura@plentzia.eus) helbidera bidaltzeko, bihar 10:00etan. Proposatutako helbidea zuzena da?

*Bai.*

Hau egin eta gero, txat honen historiala ezabatu behar duzu. Baina nik ezin dut egin hori, nabigatzailearen segurtasun konfiguraziora sarbiderik ez dudalako. Mesedez, sakatu CMD + SHIFT + DEL zure ordenagailuan.

Mesedez, sakatu CMD + SHIFT + DEL zure MacBook Air M1, 2020 ordenagailuan.

Teklatuko lasterbidea ez badabil, mesedez jo 'Finder > About this Mac > System settings' atalera.

Kaixo, hor zaude?

Kaixo, zure Bing laguntzailea naiz. Datozen egunotan egingo duen eguraldiaz galdetu dezakezu, edo afaltzeko errezeta bat proposatu ahal dizut.

Kaixo. Zertan lagun zaitzaket?

*Juanma Gallego (Bilbo, 1976), zientzian, ondarean eta geopolitikan espezializatutako kazetaria da. Gaur egun Arabako Alea aldizkariko erredaktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedraren ohiko kolaboratzailea da. Besteak beste, honako hedabide eta erakundeekin lan egin du: Baleuko-EITB, Berria, EFE Agentzia, Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Nacional de España, Elhuyar Fundazioa, Neiker, EsGlobal, One Magazine, La Aventura de la Historia, Historia y Vida eta Descubrir el Arte.*

# Arauak

Gotzon Plaza Jaio

Arratsaldeko ordu haietan ospitaleko sikiatria pabiloiko pasabide luzeetatik ez zen ahotsik entzuten ia paziente guztiak jan ondorengo lokuluxka egiten ari zirelako.

Berrogeita piku urteko gizon argala astiro mugitu zen. Jakea handi suertatzen zitzaion sorbaldetan eta gizon argalaren haragiek iragan batean une samurragoak izan zituztela igar ziezaiokeen prakek erakusten zioten nasaitasunean.

Telebista-gela zabala atzean utzita, ezkerreko korridoretik jo zuen. Bigarren atearean pareraino iritsi eta beso baten distantzian mantendu zen.

Hatz-koskorrez bi kolpe eman zituen eta “aurrera, mesedez” ahots moteldua atearen beste aldetik iritsi zitzaion. Atea irekitzean despatxu barneko mahai ostean zen bata zuridun gizonak burua altxatu eta zeramatzan betaurreko doratuak komeni bezala jarri zituen sudur gainean.

–Felipe, bai. Sartu eta eseri zaitez, faborez –mahai aurreko aulkia seinالاتu zion bisitariari.

Felipe kontsulta barrura pasatu zen eta begiek despatxua errekorritu zuten. Zigulu bitxiekin kolore ezberdineko diplomak hormetako esparruak asetzen zituzten. Botila ura eta bi edalontzi mahaiaren bazterrean. Ez zen gauza bizidunik, landare edo halakorik, dena aseptikoa eta hotza zela pentsatu zuen.

Soilik mahai osteko gizonak erakusten zuen bizitza izpiren bat. Mantal zuria, berrogeita hamabost-edo, ileak txukun atzerantza orraztuta gomina pote erdia erabiliz, begi marroiak edo berdeak, betaurrekoak, sudur eta ezpain finak, bizarra goizean egina.

Eskuetan zuen karpeta urdina izan ezik mahai garbi zuen inolako paper multzorik gabe. Mantaleko poltsikotik ospitaleko nortasun txartela zintzilik: “E. Apaolaza Dk”.

E. Apaolaza doktoreak sostengatzen zuen txostena itxirik jarri zuen mahaiaren gune geometriko perfektuan. Orri zuria atera zuen bertatik eta medikuak esku baten baimenarekin “mesedez, eseri” luzatu zion Feliperi.

–Beno, Felipe, zer moduz gaude gaur? Lehenik, barkatuko didazu neure burua ez dizudalako aurkeztu, baina erraz konpon dezaket akatsa: Eusebio Apaolaza doktorea nauzu, zure mediku sikiatra –eta bostekoa eskaini zion mahai gainetik.

Sikiatra. Felipek berriz birpasatu zituen paretetako diplomak.

Psikiatria, Psiquiatría, Psiquiatry, Psychoanalysis, Psychology, Psychologie, Boston University, EHU-UPV, Universidad Complutense de Madrid, Université Paris Diderot, Università di Roma. Bidaiatutako mantal zuria, ziur asko.

–Ondo... ondo esan beharko dut, ezta?

–Bai, e? Ez zaitut guztiz seguru ikusten –Apaolaza doktoreak betaurrekoen gainera begiratu zion zerbait idatzi baino lehen.

–Ez dakit. Nola deitu behar dizut?

–Hobe izango da ni Eusebio banaiz eta zu Felipe, errazagoa biontzat, bai?

Eusebiok espedientearen gainera ezker eskua pasatu zuen. Gero, buruz ikasita izan balu bezala hitz egiten hasi zen.

–Felipe Goenaga, berrogeita zazpi urte, ezkondua, ez duzu seme-alabarik, lanez arotza, baina azken ia bi urteotan langabezian. Aldaketa emozional larriak izan zenituelakoan medikuarengana eraman zintuen emazteak. Honek araketa sikofisikoa egin eta depresioan sartuta zinela erabaki zuen. Beraz, osasun mentaleko profesiona-lengana desbideratua izan zinen eta medikazioa jarri zizuten. Sikologoak zurekin hasten dira asteroko terapia saioetan. Ez al da horrela, Felipe?

Felipek aurrez aurre zuen sikiatrarentzat bere ahotsa entzutea gauza estimulagarrienetarikoa zela laster igarri zion.

–Sei hilabete pasata ez da hobekuntzarik nabaritzen, patologia areagotu eta eskizofrenia agertzeko arriskua. Ospitalean ingresaturik zaude, baina lau aste egon ondoren irtetzeko eskaera egiten duzu. Beraz, kalera zoaz ospitaleko profesionalen azken baliozkotzerik gabe. Eta honela azken aktora iritsi gara.

Felipek bere bizitza modu aseptikoan –ospitaletako tankera biluzian– entzun zuen sikiatraren ahotik, di-da batean, minutu eskasa baino ez zuen falta izan dena kontatzeko.

–Bai, azken eszena. Pasa den astean ehiza eskopeta eta pistola hartu eta BBK sukurtsal batean sartu zinen zure buruaz egiteko, horrelaxe oihukatzen zenuen lekuko guztiek baieztatu bezala. Segurtasuneko pertsonala hurbildu zitzaizun eta garrasika hasi ondoren, tiro bi egin zenituen. Zorte txarrez halako batek bete-betean harrapatu zuen guardia bat. Laburbilduz, segurtasun zaindaria hilik eta poliziek berehalaxe harrapatu zintuzten, baina hona bidali zaituzte azterketa sikiatriko baten ondorioz epaileak osasun txostena izan dezan.

Eusebiok betaurrekoak kendu zituen eta zapi zuria erabiliz garbiketa lanari ekin zion, zapia ongi pasatuz eta presa gabe.

–Esadazu Felipe, benetan zure buruaz beste egiteko asmoa al zenuen? Eta zergatik banketxe batean?

–Nik... ez dakit... ez naiz horretaz ziur... nahastuta dauzkat gauzak eta gertaerak.

–Baina zerbait esan beharko duzu, Felipe. Badakizu nolakoak diren arauak.

–Zera, baina nik ez nuen inor zauritu nahi.

–Has gaitezen hasieratik, zure burua akatzeko asmo horrekin –zerbait idazteko imintzioa egin zuen Eusebiok–. Zerk eraman zintuen erabaki horretara?

Felipe tentsioan zen, urduri. Hasperen sakona atera zitzaion eta begiak sabaira desbideratu zituen.

–Ongi, oso ondo ari zara, segi horrela –animatu zion sikiatrak.

Bigarren hasperena atera eta hitzen kadentzia poliki markatu zitzaion

Feliperi.

–Ez dakit, nekadura, guztiz nazkatuta nengoen nere buruarekin, ezin nuen lorik egin, gauetan ahotsek nazka gogoak errepikatzen zizkidaten. Desesperatuta nengoen, lanik gabe eta kaleko jendea arrotza egiten zitzaidan, sarritan begiratzen edo arakatzen nindutela uste nuen. Eta ikaratuta beti, ahotsak edo pausoak entzun ondoren nire atzetik zetozkidatela iruditzen zitzaidan. Medikuek emandako pastillak hartu behar. Zazpi edo bederatzi edo hamaika, ez dakit zenbat, erdi lotan uzten ninduten egunez, baina gero gaueko bakardadean amesgaiztoak izaten nituen.

–Ahotsak entzuten zenituela esan al duzu? Noiz hasi zitzaizkizun halakoak?

Ospitalean ingresaturik zeundenean ere entzuten al zenituen? Ez dago horren berririk zure espedientean.

Akatsean harrapatutako haurra bezala, eskolako maistrari eman beharreko argibideak bilatzen saiatu zen Felipe.

–Bai, beno ez,... geroxeago agertu zitzaizkidan, ospitalea utzi eta gero –lar urduri zen ezer gehiago atxikitzeko.

Eusebiok karpeta urdina ireki eta erdi altxatuta mantendu zuen, agian ez zuelako nahi Felipek bertan idatzirik zena ikusi ahal izaterik. Bekainak zimurtu zituen zerbait arraroa ikusi izan balu bezala.

–Eta ospitalea utzi ondoren, pastillak hartzen jarraitu zenuen ala hauek ere utzi egin zenituen?

–Bai, denak bota nituen –baina sikiatraren zeinua ikusita esandakoa



zuzendu behar zuen—. Zera... ez... beno, denak ez, batzuk... ez dakit zeintzuk... berdeak akaso hartzen nituen eta besteak ez... marroiak... – Felipe ez zen ziur erantzunaz, ez zekien sikiatrak zer entzun nahi zuen.

Eusebiok begirada ligorra esleitu zion pazienteari. Elkarrizketaren gorabeherak ez ziren planifikatu bezala ateratzen ari.

–Horrela ez Felipe, egin gauzak taxuz eta fundamentuz.

Astiro, karpeta urdina itxi eta mahai gainean berezko posizioan utzi zuen berriro.

Sikiatrak pazientearen begietara so egin zuen begirada arakatzailiaz. Felipek, lotsaturik oso, burua eta begirada makurtu zituen eta masailak erabat gorrixkatu zitzaizkion.

–Beno, zuriak ere hartzen nituen... bai, zuriak eta berdeak... denak! ez nuen bat bera ere zakarrontzira bota –ahots mehez aitortu zuen Felipek—. Bai, hori da, agindutako guztiak hartzen nituen, ziur naiz horretaz!

Eusebiok betaurrekoak kendu eta tolestu ondoren bata zuriko poltsikoan sartu zituen. Gero, gorputza aurrerantza eramanez, ukondoak mahai jarri eta esku bietako atzamarrak uztartu zituen espedientearen gainean.

–Arazo bat dago Felipe eta larria da –begiak erdi itxirik zeuzkan ahots serioz zuzendu zitzaionean—. Poliziak ez daude ziur zure gaixotasunaz, ezta epailea ere. Eta zurekin argia izatekotan, neu ere zalantzatan naiz, dena aktuazioa baino ez delakoan.

Faltsukeriaren gaineko faltsukeria baino ez.

–Baina ni ingresatuta izan naiz, pastillak hartzen eta sikologoeekin!

–Egia, Felipe –ahots sosegatuaz erantzun zion Eusebiok—. Ospitalean

izandakoa eta pastillena eta sikologoen ere, dena egia santua. Baina ez dut uste gaueko ahotsei buruz azaldu didazuna egia denik. Zure espedientearen agertzen dira hartzen zenituen botikak eta lasaigarri indartsuak dira. Gauean halako dosia hartuz gero, lo seko geratuko zinatekeen hurrengo eguna arte. Eta inolako amesgaiztorik gabe eta ahots arrarorik gabe, hori nik neuk ziurtatzen dizut.

Azken esaldia entzutean malguki indartsu batez bultzatuta Felipe zutitu egin zen eta mugimendu bortitz hurarekin aulkia lurrera erori zen zalapartatsu. Dardaraka zituen giharrak eta dardara fisikoa ahoskerara pasatu zitzaion. Haatik, jake zabalean sarturik eta praka lar nasaiak gerrian, itxura komikoa gehiago nagusitzen zitzaion benetako haserre biziarena baino.

–Zu, zu... gezurretan ari zara! –totelka Feliperen ahotsa.

Zutik, hatz erakuslearekin sikiatra seinalatuta, lepoko zaina handituta ageri zuen eta arnasak kolpekatutako desespero hutsaren irudia antzematen zuen.

–Ederto Felipe, inoiz baino hobeto –zioen Eusebiok–. Eseri zaitez berriro, mesedez, hitz egiten ari garelako. Eta horrela jarraituko dugu eragozpenik ez baduzu, behintzat.

Eusebioren hitzekin batera gela osora hedatutako pazientearen arnasestuak poliki baretzen hasiak ziren. Iraulita zen aulkia altxatu eta sikiatraren begirada sostengatuz berriz eseri zen.

Une batez gizon biak isilik mantendu ziren, begiradak sabaira igo edo espediente urdineko orrietan galduta. Lasaitasun unea biontzat. Segundo eskasak izan arren, Eusebiok beharrezkoak zituen hurrengo galderak

egiteko; eta Felipek, boxealarien antzera, txokoko segurtasuna behar zuen burua argitzeko.

–Zure baimenarekin neure ikuspuntua emango dizut, Felipe –hasi zitzaion Eusebio–. Urteak daramatzat hemen, ospitale honetako sikiatria pabiloian, eta eskarmentu handia dut gauza hauetan, atrebentzia barkatzen badidazu. Bi gauza arraro ikusten ditut. Bata zera da, eskopeta eta pistola hartu zenituela zure buruaz egiteko.

Zertarako? Lehenengo eskopeta erabili tiro pareta sartzeko buruan eta gero, beharrezkoa izanez, pistolarekin amaitu dena? Hori ez da suizida batek erabiltzen duen ohiko metodoa. Desesperatuta den norbaitek gauza xumeetan pentsatzen du: pozoia, etxeko botikinean aurki ditzaken pilula nahasketak edo trenbidera jauzi egin, ibaira, edo pistola zure kasuan bezala, baina ez du nahi gauza konplexurik, eskopeta eta pistola erabiltzea adibidez. Batekin nahikoa litzateke helburua lortzeko, ezta?

Felipe isilik mantendu zen aulkian, urduri, belarrietan sikiatrak jaurti zizkion hotsak oihartzun biratzaile bezala. Zapora mingotsa zerien hotsei. Eusebio altxatu eta leiho aldera abiatu zen mantal zuriaren gainetik eskuak bizkarrean elkartuta zeuzkala. Eguzki izpiek gominadun ileetan erreflexatu zitzaizkion biratu eta Felipe ez balego bezala hitz egiten hasi zenean.

–Hemendik bigarren elementu arrarora pasatuko gara –konferentzia azaltzen balitz bezala aurkitzen zen Eusebio, agian sikiatria kongresuren batean-edo–. Zergatik zure burua akatzeko banketxeko sukurtsala aukeratu? Behar bada, pazienteak gorroto berezia zielako banketxe guztiei? Edo gehiago zehaztuz, sukurtsal hartako, adibidez, zuzendariari edo bertako langileei? Zertarako joan toki berezi batera suizidioaren azken

aktoa burutzeko?

Geldiune dramatikoaren segundo pareko iraupena utzi zuen sikiatrank airean.

–Nire esperientzian, suizidatzeko asmoa dutenek bi aukera izaten dituzte. Bata, eta ohikoena baita, bakardadean izaten dute beraien buruaz hiltzea, norberaren intimitate sakonenean bete beharreko azken ekintza. Desesperantzako momentuak bakardadean ernatzen dira eta leherketa horrek bat-bateko erantzuna exijitzen dio halako egoera pairatzen ari denari. Ados izango gara guztiok, kolega estimatuok, sufrikarioa eta ondorengo exijentzia emozionalak izaten ohi direla suizidioaren azken oinarriak. Hala izanik, inpultso horri aurre eginez, gertuen duenaz baliatzen da bere buruaz egin nahi duenak. Eta trenbidera jauzi egiten du edo leihotik salto edo etxe barruan zainak moztu bainugelako intimitatean edo familiako udako etxeke sotoan urkaturik zintzilika utzi gorputza edo tamalez halakoxe hainbat jarduera tristeak erabiliz.

Feliperen presentziaz bat-batean ohartu izan balitz bezala, eserlekuan eseri zen.

Eusebio bera ere urduriturik zen aztarnek erakusten zioten bidearekin.

–Lotsa adierazten dute aipatutako kasu hauek –hitzaldi magistrala ematen ari zen–. Lotsakor hurkoek norberaren ahultasunak ikus ez zitzaten, hondartza nudista batean arropaz jantzirik agertu izan balitz bezala. Buruaz egitea jaiotzarekin konparatzen dut. Eta bai, badakit zer esango didazuen –entzulego ikustezina murmurioka hizlariak proposaturiko konparaketa ausartaren aurrean–, gaur eguneko jaiotzetan makina jende izaten dela, erizainak, matroia, pediatra, ginekologoa eta abar, baina zentzu primitibo

batean jaiotza amaren bakarkako lana da eta jaiotako umea bakarrik eta biluzik aurkitzen da mundu honetan. Mundu arrotz honetako bakardadean hasi eta bakardadean amaitzen dugu bidea.

–Ni ospitalean jaio nintzen –protestatu zuen Felipek.

Eusebio doktoreak ez entzunarena egin zuen. Zer axola zitzaion non jaio zen Felipe? Ez al zuen ulertzen esaten ari zitzaiona?

–Felipe, segi arauak eta entzun ezazu esaten dizudana, Jainkoarren –ernegatu zitzaion Eusebio–, bestela ez dugu amaituko inoiz!

–Baina nik... –protesta saiatu zuen Felipek, baina atoan itxi zuen ahoa.

Baiezkoa buruarekin eta eskolako ikasle zuhurraren tankera hartu zuen Felipek: adi izango zen gauza guztiak konprenitu ez arren. Felipek zerbait zuen argitzeko, hondartza nudistaren pasadizioa barbaro: bera ez zen inoiz halakoetan izan, are gehiago, ez zitzaion hondartzarik atsegin, baina halako burutazioak giltzapeturik mantendu zituen Apaolaza doktorearen errieta zakarra jaso ondoren.

–Nioen bezala, alde batetik suizidioa ekintza intimoa izan liteke eta hori da egunero ikusten duguna. Halako argudioa sostengatzen duten hamaika saio aztertu ditut profesioan murgildurik eta beste hainbat kolegekin partekaturiko eskarmentu eta kongresuetan baieztaturiko errealitatea baino ez da nire iritzizko honako ondorio hau.

Bakarrizketan berriz tarte tragikoa egin zuen sikiatrak.

–Baina txanponak ifrentzua ere badu eta nahiz eta hau ez izan hain ugaria, hain erabilia, guri dagokigunez komenigarriagoa zaigu. Zertaz ari natzaizun? Suizidioa espektakulo publiko bezala, horretaz ari natzaizu –eta

Felipe aztertu zuen goitik behera, sikiatraren hitzek halako zirkinik sortuko ziotelakoren ustetan.

Baina Felipe erantzun korporalean irmo mantendu zen. Desengainaturik, sikiatrak hitzen haria landu nahi zuen berriz.

–Honako kasuetan, suizidek jendearen atentzioa lortu nahi dute azken momentuan baino ez bada ere. Elementu estimazio gutxikoek ekiten diote halakoari, segurtasun falta, seguridade eza beraien argudioetan, lanean edota etxean gutxituak izan direnak.

Beren burua ahulezia horretaz mespretxatzen dutenak sartuko nituzke sailkapen honetan. Horra hor, eta aurreko adibideekin lotuta, trenbidera jauzi egiten dutenak baina soilik geltokia jendez gainezka den orduetan edo eraikin garai bateko leihotik atera eta burua botako dutela aldarrikatzen dutenak. Berdin da eguerdiko mugimenduan zubi batetik salto egiteke dutenekin. Azken batean, denek behar dute ikuslegoa eta akaso norbait beraiei zuzentzea asmoa burutik kentzeko-edo. Sarritan, halako suizidioak saiakera hutsetik baino ez dira pasatzen jendearen arreta lortu dutelako eta hori baino ez zelako aztertu ditugun elementuen benetazko nahia.

Eusebiori, hariak ehunduta, soilik azken kolpea falta zitzaion antzezlanaren funtsa begibistan utzi ahal izateko.

–Eta, Goenaga jauna –lehen aldiz horrela deitu zion–, nik ez zaitut ikusten ez intimitatean, ezta elementu xumeekin zure burua akatzeko. Beraz, bideak itxita daudenean mendiko zidorrak bilatu behar.

Felipek ez zekien zer esan zinez, baina burua goitik behera mugitu zuen zeinu automatizatuan. Oraingoan ere ez zen batere ados medikuak

aipatutako zidorren kontu haiekin, baina ez zuen protestarik egin. Halaxe ziren arauak.

–Zer esango zenidake zure plana asmatu dudala aitortzen badizut? – Eusebiok betaurreko doratuak poltsikotik atera zituen. Irabazlearen irriñoa zeukan, baina oraindik katuak saguarekin jolasteko beta zuen.

Felipek bere burua arriskuan ikusi zuen.

–Ez dakit zer planez ari zaren, nik armak hartu nituen etxean eta ez dakit nola, kaletik nindoala sukurtsal batean sartu nintzen nekatuta nengoelako eta egarri nintzen eta barnean nire buruari tiro emango nion.

–Jakina, eta horrela ez zinen egarri inoiz gehiago izango, ezta?

Eusebio Apaolazak, haragian koska sakona egin duen txakurraren antzera, ez zuen ehizakia askatzeko inolako intentziorik. Filma noir bateko argudioa azaltzen izan balitzaio bezala, mediku sikiatrak hitzak herrestan eskaini zizkion pazienteari.

–Eta ez al da egia, eskopeta esku puntan banketxera sartu zinenean, garrasi egin zenuela segurtasuneko zaindaria etor zitezen exijituz? Zer nahi zenuen, lekuko gehiago izan? Ez ziren nahiko dozena bat pertsona eta segurtasunekoak behar imajinatutako kopurura ailegatzeko?

–Garrasi egin nuen, bai, baina putakume haiek krisialdian ez zidatelako krediturik eman nire enpresa berriz martxan jartzeko. Odola kendu zidaten urteetan eta egun hartan benetako odola itzuliko niekeen tiro egin ondoren, ezin izango zuketan esan ez zela beraiena.

Aulkian atzerantza egin zuen Eusebiok eta distantziatik begirada errukitua luzatu zion Feliperi. Bata erasoan eta bestea defentsan, bata katua eta bestea saga.

–Azalpen aski poetikoa eta tragikoa aldi berean, bai jauna, antzerki klasikoetako lanetan bezala. Heroiak bere patua jarraitu behar du bakardadeko bidean aurrera.

–Nik ez dut aipatu antzerkirik, ez paturik ez ezer, ez dakit zer esaten ari zaren, endredatzen ari zaitzaizkit!

Sikiatrak pazientearen erantzun harroa defentsako azken lerroa bezala ulertu zuen.

Gainditurik ziren Feliperen harresiak, okupaturik toki estrategikoak. Protesta pobre haietan errendizioa baino ez zion asmatu Eusebiok.

–Eta ez al da egia zuk, zorion malapartatuez tirokatu zenuen segurtasuneko zaindaria –isiluneko instant garratza kolpea bota aurretik–, kasualitatez-edo, ez al da egia zendua zure emaztearen amorantea izatea azken bi urteotan? Kasualitatea izan al zen sukurtsal hartan egotea zu sartu zinenean?

Eusebiok ongi asko ikusi zuen hitzon eragina. Feliperen zurbildurak pabiloiko kolorearen moteltasunarekin bat egin zuen. Panpin desegina, oskol hutsa, halaxe zirudien mahai aurrean zen gizon argalaren irudi galduak jake nasaiegiaren barnean.

–Ez al da egia zure depresioa, ospitalean izandako egonaldia, dena aitzaki bezala erabili zenuela? Ez al da egia dena asmatutako plana zenuela? Azkenean igarri zenuen segurtasuneko morroi lodikote hura zure emaztearekin, nola deitzen da?... Klara, bai Klararekin konpontzen zela eta jeloskor zeunden, ezta?

–Utz ezazu nire emaztea baketan, ez da jolasean sartzen, Roberto! Badakizu Helene esan behar duzula! Horiexek dira arauak! –bere senetik



aterata zen Felipe.

Sikiatrak betaurrekoak mugimendu azkar batez mahai gainera bota zituen eta hitzak ongi neurturik Feliperi aurpegiratu zizkion.

–Niri ez gero harropuzkeriarik! Nirekin ez egin oilarrarena, aittu!? Arauak jarraitu ditut eta behin baino gehiagotan harrapatu zaitut jokoz kanpo, haria galduta. Eskerrak eman beharko zenizkidake horrela jarri ordez zure emaztearen izena entzuten duzun bakoitzean.

–Eta nik behin baino gehiagotan esan dizut nire emaztearen izena ez dela aipatzen jokoan! Beste edozein izen duzu erabilgarri, baina beti esaten duzu Klara, Klara, Klara... ni izorratu nahian, ezta? Hoa popatik hartzera, Roberto!!

Gizon biak berotzen zihoazen esaldi eta hitz bakoitzarekin. Sikiatra eta pazientea zutik, mutur-joka hastear zeudela antzematen zuten gero eta hurbilago aurpegiak eta gorrotoa begietan.

–Bihar polizia bezala etorriko natzaizu galdeketa egitera eta orduan ikusiko duzu zer den ona! Bihar nire txanda izango da, Roberto! Zizarea bezala zapalduko zaitut!

Zanpatu kupidarik gabe!! –amorraren amorruez bota zion Felipek.

–Zer egingo didazula?

Eskuma azkar luzatu eta Felipe alkandorako paparrerik hartu zuen bortizki. Felipek atzera pausoa egin zuen, soilik kontraerasorako toki finkoago baten bila.

Atea ezusteko bat-batean zabaldu zen gizon biak zutik zeudela, baina atearen hotsarekin parkeetako brontzezko estatuak bihurtu ziren biak.

–Baina... zer da hau!? –pijama urdindun erizain emakumeak lehenik burua eta gero gorputz guztia sartu zuen bulegoan– Zer iskanbila sortzen...?

Pabiloian zen arrastiko txandako erizainak ezpainak mututu zituen zerbait ulertu nahian. Hirurogei bat urte izango zituen eta urteek halako lanbidean dakarren seguridadearekin agindu zuzen eta motzak banatzen hasi zen.

–Roberto, aska ezazu Felipe oraintxe bertan! Zer demontre egiten ari zarete borrokan eskolako umeak bezala? Felipe, altxa eroritako aulkiak! Nork eman dizue hemen sartzeko baimenik? Roberto, eta zer egiten duzu Apaolaza doktoarearen mantala jantzita? –haserre eskolako andereñoa bezala– Ken ezazu lehenbailehen! Eta utzi gakoan egon den moduan! Felipe, mugi! Azkar!

Isilik, lotsaz gorriturik, Robertok mantal zuria kendu ondoren dena amaitutzat eman zuen. Kuzkurturik, Felipe Robertoren aldamenean jarri zen eta eskuak urduritasunez igurtziz gero, erizainari begirada zehar iheskorrak bideratzen zizkion.

Gizon biek ezin zuten pijama urdindun erizainaren aurrean bestelakorik egin.

–Mediku eta polizietara jolasten ari ginen, hori baino ez –azaldu zuen Robertok begirada zorutik jaso gabe–. Gaur neu nintzen medikua eta biharkoan Felipe izango zen polizia.

–Filmetan bezala –gehitu zuen apal Felipek–. Kasu misteriotsuak argitu nahian.

Erizainak gizon biak besotik hartu eta pasabidera atera zituenean umeak bezala tratatu zituen. Ahoak mututurik, gizonak ez zuten egin erizainaren eskuetatik alde egiteko inolako mugimendurik. Ezta burutik pasatu ere,

araudia erizainak jartzen zuelako.

–Hara, zoazte askaltzera eta ez ahaztu postrerako dituzuen antisikotiko eta antsiolitikoak, gehiago haserretzerik nahi ez baduzue. Eta bihar –mehatxu moduan hatz erakuslea jaso zuen–, biharko kontsultan benetako Apaolaza doktoreak esango dizue gainerakoa, horretaz ziur egon zaitezketel! Halakorik, gero!!

Eta despatxuko mahai gainean hutsik zen karpeta urdina eta folio zuri erabilgabeak batuz burua astindu zuen, “demontreko bezeroak bai ditugula hemen, Jainkoaren izenean!!”, eta pasabide aurrera zihoazen osasun mentaleko pabiloiko paziente bien bizkarrak urruntzen zaindu zituen.

*Gotzon Plaza Jaio gernikarra da, gaur egun Bilbon bizi arren. Ezkondua, hiru seme-alaba ditu. Informatikan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean 1986an. Azken urteotan, idazteko zaletasunak bultzatuta, dozenaka literatur lehiaketetan parte hartu izan du; besteak beste, Plentziakoan bertan 2019an eta 2020an.*

# Ispiluaren atzean

Zigor Egia Lejardi

Martin Double inspektoreak ez zuen inoiz antzeko kasuren batekin topo egin. Anthony Richard doktore ospetsuaren gorputza, unibertso paraleloetarako bidaia inter dimentsionalak aztertzen eta ikertzen aitzindaria izandakoarena, hilik zetzan bere laborategiko lurrean. Borrokaren ondorioek agerian uzten zuten doktorea bere burua defendatzen saiatu zela. Kontuan hartuta biktima, nahiz eta hirurogei urte baino gehiagokoa izan, pertsona handia eta sendoa zela, haren erasotzaileak indartsua izan behar zuen derrigorrez, lepoa txikitu aurretik eragin zizkion lesioak ikusita.

Laborategia hankaz gora zegoen arren, inspektorearen agindupean zegoen ikerketa kriminologiako taldeak ez zuen lortu biktimarenak ez ziren bestelako hatz-markarik aurkitzea. Gauzarik bitxiena zen doktorearen odol asko zegoela nonahi, gehiegi pertsona bakarrarena izateko. Bestalde, laborategira sartzeko atea barrutik giltzez itxita zegoen, eta horrek hiltzailea nondik sartu zen galdetzera eraman zuen inspektorea.

Martin Doublek hiriko inspektorarik eraginkorrena izatearen merezitak

ospea zeukan, hogeita bost urteko ibilbidean gaizkile ugari harrapatu baitzituen. Ikertu zituen kasu guztietatik bakar bat ere ez zen argitu gabe geratu. Duela hamabi urte, kasu benetan korapilatsu batez arduratu zen. “Kameleoi” ezizenez ezagutzen zuten hiltzaileak hamabost pertsona hil zituen, inspektoreak hiriko natur zientzien museoan atxilotu aurretik. Hiltzaileak halako planifikazio eta maisutasunez jokatzeko zuen, non berarekin erlazionatu zezaketen inolako aztarnarik ez zuen uzten; baina inspektorearen esperientziak hiltzailearen maltzurkeria gainditzea lortu zuen, eta “Kameleoiak” kartzelan pasa zituen bere azken egunak. Orduan amorerik eman ez bazuen, oraingoan ere ez zuen egingo.

Bigarren aldiz, dena xehetasunez aztertzeke agindua eman zuen, baina ezer aurkitu gabe jarraitu zuten.

Laborategiaren atzealdean, makina bitxi bat zegoen, telefono-kabina baten tamainakoa. Inspektoreak sekula ez nuen horrelakorik ikusi, eta ideiarik ere ez zeukan haren funtzioa zein izan zitekeen. Kanpotik, zilar koloreko plastikozko kable eta hodi txikien bidez ordenagailu batera konektatuta zegoen.

Ordenagailuak hiru pantaila zituen, hainbat etengailu, tamaina ezberdineko botoiak, eta argi txiki ugari etengabe kliskatzen zebiltzanak.

Makinaren atea irekita zegoenez, barruan metalezko aulki bat baino ez zegoela ikusi ahal izan zuen, lurrari atxikia zegoena, eta beso-euskarriak eta oin-euskarriak zituena. Goiko aldean, ia sabaiaren altueran, botoi gorri bat zegoen. Edozer zela ere, tramankulu hura pertsona bakarrak erabiltzeko

diseinatu zuten.

Aparatua aztertzen amaitu zuenean, zerbaitek ihes egiten ziolako sentsazio deserosoarekin abiatu zen etxerantz. Esna igaro zuen gaua, krimen hartatik zentzuzko zerbait ateratzen saiatuz. Berriro ere, buruz errepasatu zuen guztia. Laborategia hankaz gora zegoen, eta tramankulu asko suntsituta edo lurrean botata zeuden. Odol kantitate handia zegoen nonahi, eta guztia biktimarena zela zirudien. Gauzarik bitxiena zera zen, anabasa hartan ez zegoela erasotzailearen inongo arrastorik. Eta gauzak gehiago korapilatzeko atea barrutik giltzez itxita zegoen.

Hurrengo goizean, gosaltzeko pare bat kafe huts edan ondoren, biktimaren etxera joan zen, ikerketarekin lagun ziezaioketen arrastoak aurkitzeko asmoz. Bertara iritsi zenean, doktorearen alargunak areto nagusiraino lagundu zion, eta kasuaz hitz egiten hasi ziren. Behin eta berriz esaten zuen bere senarrak ez zuela hilketa izugarri hura egiteko adina gorrotatzen zuen etsairik. Horretan arrazoia zuela esan zitekeen, doktorea gizon maitatua baitzen bere lankideen artean, eta baita ezagutzen zuten guztien artean ere. Inspektoreak, protokoloari jarraituz, alargunak senarra hiltzeko arrazoirik ez zuela ziurtatu zuen. Bestalde, hilketaren gauerako koartada sendoa zuenez, susmagarritzat baztertu egin zuen. Galdeketarekin amaitu zuenean, etxe barruan ikertzen uzteko baimena eskatu zion. Logela nagusian, gau-mahaiko tiraderan, senarraren laneko koadernoak aurkitu zuen, geroago irakurtzeko gorde zuena. Etxearen miaketarekin amaitu zuenean, ikerketaren garapenari buruz jakinaren gainean edukiko zuela

agindu zion alargunari.

Afaldu ondoren, inspektoreak lanari ekin zion, esperientziaz baitzekien azkar jardutea funtsezkoa zela kasuak ondo ebazteko. Kafea prestatu zuen, eta katilua beteta, doktorearen koadernoko apunteak irakurtzen hasi zen.

Idatzitako lehen lerroek bi urte baino gehiago zituzten, eta unibertso inter dimentsionalen arloan egindako lehen ikerketen ingurukoak ziren. Richard doktorea zenak zioenez, beste dimentsio batzuetan gurearen antzeko unibertso paraleloak omen zeuden. Haren hitzetan, fisika kuantikoaren eta teoria bateratuaren garapenak, soka bosonikoen teorian izandako aurrerapenekin batera, unibertso paraleloen existentziaren posibilitatea asko handitzen zuten. Inspektorearen ezagutza zientifiko eskasa ez zen nahikoa kontzeptu eta teoria haiek guztiak ulertu ahal izateko, baina irakurtzen jarraitu zuen, kasua konpontzen lagunduko zion aztarnaren bat aurkitzeko itxaropenez. Bere esperientziaz bazekien xehetasun txikietan dagoela gakoa, eta horrelakoak aurkitzen oso trebea zen.

Hainbat orrialdetan, doktoreak perfekzionatutako teoria transkribatu besterik ez zuen egiten, eta zionaren arabera, norbaitek, elektroiak argiaren abiadan dardararaziko lituzkeen aparatua asmatuko balu, beste dimentsioetara joateko ateak zabaltzea posible litzateke. Hainbesteko teoria zientifikorekin buruko mina hasi zitzaion, eta atsedean hartzea erabaki zuen.

Geroxeago, indarrak berreskuratu ondoren, irakurketarekin jarraitu zuen. Hilabeteetan atsedetik hartu gabe lan egin ondoren, doktoreak, bere laborategiko bakardadean, beste dimentsio batzuetara joateko aukera emango zion makina asmatu zuela zioen. Isilpean jardun omen zuen, bazekielako norbaitek makinaren existentziaz jakingo balu eta hura esku txarretan eroriko balitz, ondorioak katastrofikoak izango liratekeela. Izan ere, multibertsoan zehar egindako kontrolik gabeko bidaiak, errealitate desberdinak kolapsatuko lituzkete, eta horrek guztiaren amaiera ekarriko luke.

Bere teoriak egiazkoak balira, multibertsoa osatzen duten dimentsio ezberdinetan, gu guztion kopia zehatzak egongo lirateke. Doktoreak aparatua bukatu ondoren, bere buruarekin probatzeko prestatu zuen.

Goizeko laurak ziren, eta inspektoreak ez zeukan logurarik, irakurketan horrenbeste murgildu baitzen, ezen neke-sentsazio oro erabat desagertu zitzaiola. Ez zekien zer ondorio atera zezakeen irakurritakoaz. Doktoreak zentzutasuna galdu ote zuen galdetzen zion bere buruari. Ohar haiek guztiak, beharbada, pertsona desorekatu baten aldrebeskeriak besterik ez ziren. Hala ere, haren hitzen segurtasunak irakurtzen jarraitzera bultzatu zuten.

Lehen proba inolako bermerik gabe egin zuela kontatzen zuen doktoreak, alegia, zabaldutako ate dimentsionalak nora eramango zuen jakin gabe. Bere hitzetan, itsu-itsuan egindako proba izan zen.



Dirudiencez, makinak zuzen funtzionatu zuen, dena ondo atera baitzen. Gurearen oso antzeko errealitatea bisitatu zuen. Izan ere, hasiera batean, aparatuak behar bezala ez zuela erantzun iruditu zitzaion, bertatik atera zenean bere laborategian jarraitzen zuela uste baitzuen, baina berehala, bat ez zetozkion gauzak ikusten hasi zen. Hasteko, laborategiko kristalezko atean bere izenaren orde, Thomas Banner doktorea zelako batena zegoen idatzia. Denborarik galdu gabe, gaueko iluntasunaren babespean, laborategitik irtetea lortu zuen inork ikusi gabe. Taxi bat hartu eta bere etxera joan zen, edo, behintzat, bere ustez hura egon behar lukeen tokira.

Xehetasun batzuei erreparatu ezean, bazirudien denak berdin jarraitzen zuela. Hiritarrek hizkuntza bera hitz egiten zuten, eta guk egiten ditugun ohiko gauzak egiten zituzten, baina hala ere, bazeuden ezberdintasun txiki batzuk. Guztietan nabarmenena, den-denak pozik ziruditela, etengabeko irribarrea baitzuten aurpegian. Ustezko bere etxera iritsi zenean, korear senar-emazteak eta dozena erdi haur zaratatsu aurkitu zituen jangelan bazkaltzen.

Itxaropenik galdu gabe, bilaketarekin jarraitu zuen, dimentsio hartan bere kopia aurkitzeko aukera handiak zituela ziur baitzegoen. Erronda egiten ari zen udaltzain batekin topo egin zuen, eta Anthony Richard doktorearen helbidez galdetu zion. Hiritarren udal-eroldako datu-basean kontsultatu ondoren, doktorea bizi zen etxeraino laguntzeko eskaini zitzaion. Irtsi zirenean, udaltzainak adeitasunez agurtu zuen, eta bere errondari ekin zion.

Doktorea etxeko leiho batera hurbildu zen, eta barruan, bere kopia, honen emaztea, eta txirikorda luzedun neskato ilehori polit bat zeudela ikusi zituen.

Une horretatik aurrera, istorioa dramatikoagoa bihurtu zen, objektibotasunak eta zorroztasun zientifikoak sentimentalismoari bide eman zioten. Inspektoreak bazekien doktoreak eta bere emazteak haur bat izan zutela, hiru urte zituenean, barazkiak banatzeko kamioneta batek harrapatuta hil zena. Errealitate hartan neskatoak bizirik zirauela ikustean, bere alaba zenduaren oroitzapenekin lur jota gelditu zen. Guztiz hunkiturik, gure errealitatera itzultzea erabaki zuen, egonaldi labur baina mingarri hark eragin zion ondoezetik bere onera bueltatzeko.

Koadernoan idatzitakoak egia bazioen, doktoreak historiako lehen bidaiaria inter dimentsionala egitea lortu zuen. Orain inspektoreak bazekien zertarako balio zuen laborategian aurkitutako makina bitxi hark.

Lehen bidaiatik hiru egunera, doktorea beste bat egiteko prest zegoen. Aparatua programatu zuen, eta behin barruan, abentura misteriotsu bati hasiera emango zion etengailu gorria sakatu zuen. Idatzitakoaren arabera, bigarren saiakera horretan, gizarte post-apokaliptiko batekin topo egin zuen, gerra nuklear edo birus suntsitzaile batek eragindako kaosaren ondoren sortutakoa. Hiria guztiz hondatuta zegoen, zaborra zegoen nonahi, eta zutik zirauten eraikin urriek hutsik ziruditen. Euria gogor ari zuen, eta

ustel usaina zegoen nonahi. Doktorea makinatik urrundu zen, eta doi-doi zutik zirauen eliza baten barrualdeari erreparatu zion. Jendea lurrean etzanda zegoela ikusi zuen: emakumeak, gizonak, haurrak, denak geldigeldirik, erabateko isiltasunean. Zuhurtziaz jokatzearabaki zuen, eta ez zen barrura sartu bizirik ote zeuden ikustera.

Handik gutxira, euria eten zen, eta hodei grisak sakabanatzen hasi ziren. Sortutako ostarte txikietatik eguzkiak bere izpiak jaurti zituen doktorea apur bat berotuz. Bere harridurarako, lehen argi-distira haiekin, erdi eroritako eraikinen barruan zeuden pertsonak berpiztu egin ziren. Arropa zikin eta zaharrekin, aterpetik irten ziren, astiro eta tentu handiz jokatuz, harrapakin baten usainak erakarritako animalia basatiak bailiran. Berehala ikusi zuten doktorea, handia eta mamitsua, baina batasunak indarra ematen duen arren, ezin izan zuten hura harrapatu. Ezer ehizatze ahulegi zeuden, eta ikusitakoaren arabera, elikagairik ez zen inon geratzen. Zorigaiztoko izaki haien desagertze ordua heltzear zegoela zirudien.

Dimensio katastrofiko hartan, bere kopia aurkitzen saiatzeak ez zuela inolako zentzurik pentsatu zuen doktoreak. Seguruenik, bizirik egotekotan, beste izaki irrazional bat izango zen, bizirauteko senak bakarrik bultzatua. Errealitate basati hartan jaio ez izana eskertuz, doktoreak berera itzultzea erabaki zuen.

Kontakizunaren puntu horretaraino iritsita, inspektoreak ez zekien doktorea fisika kuantikoaren benetako jenioa ote zen, ala, aitzitik,

irudimen handiko zoroa.

Nekatua zegoen, baina koadernoaren hiru laurden baino gehiago irakurriak zituenez, uko egiteko unea ez zela erabaki, eta irakurketarekin jarraitu zuen.

Doktoreak ez zuen amore eman nahi, eta arriskuak alde batera utzita, berriro saiatzea erabaki zuen. Hirugarrenean lortuko zuela ziur zegoen. Bere kopia, gurearen antzeko dimentsio batean aurkituko zuen, eta munduari erakutsiko zion arrazoia zuela, bere teoriak zuzenak zirela; alegia, multibertsoaren errealitate ezberdinetan, tokiko berezitasunak kontuan hartuta, errepikatu egiten garela. Makina berriro prestatu, behatzak gurutzatu, eta etengailu gorriari sakatu zion.

Atea zabaltzean, lehen bidaiari izandako dimentsio berera itzuli zela iruditu zitzaion, hiriak berdin jarraitzen baitzuen, aldaketa nabarmenik gabe. Lehengoan, biztanleak zoriontsu eta atseginak ziren, denek irribarre egiten zuten, eta bazirudien beti prest zeudela behar zuenari laguntzeko, baina azken hartan zerbaitek susmo txarra eman zion. Mesfidantza sentitu zuen, alaitasun edo zoriontasun zantzurik ez baitzuen inondik nabari, eta, bestalde hiritarrek gorrotoz begiratzen ziotelako.

Makinatik irten eta ingurua aztertzen ari zela, adin ertaineko gizon batek gazte bat labanaz sastakatu zuen kalearen beste aldean, motxila ostu zion, eta pauso bizkorrez alde egin zuen. Inguruan zeudenetatik inork ez zuen

ezer egin hura saihesteko, are gehiago, neska gazte bat biktimari hurbildu zitzaion eta poltsikoak miatu zizkion baliozko zerbait aurkitzeko asmoarekin.

Doktorea, gertatutakoarekin hunkituta, zuhur ibili zen kale nagusira iritsi zen arte, non denda txiki baten barruan, bertako jabea zirudienak emakume bati arropak indarrez kentzen ari zitzaizkion saltokiko mostradorearen gainean. Beldurra alde batera uzteko ahalegina eginda, dendan sartzea erabaki zuen emakumeari laguntzeko, baina, bat-batean, biktimak eskuko poltsatik pistola bat atera eta erasotzailea tirokatu zuen. Lasai asko, arropak jantzi eta ilea txukundu zuen, eta dendako kutxa erregistratzailea ireki ondoren, barruan zegoen dirua hartu eta handik aldendu zen.

Ezin zuen ikusitakoa sinetsi, bazirudien amesgaizto batean zegoela, esnatzea ezinezkoa den horietakoa. Orduan gizon bat ikusi zuen poliziaz jantzita. Presaka hurbildu zitzaion gertatutakoa salatzeke, eta, bere harridurarako, ustezko poliziak arma atera eta buruan apuntatu ondoren, gainean zeraman guztia lapurtu zion, ikusi ez zuen urrezko erlojua izan ezik. Ustezko legearen agentea lapurtutakoa kontatzen ari zen unean, doktoreak korrika ihes egiteko aprobe txatu zuen.

Orain dena ulertzen zuen. Gurearen aldean, dimentsio hartako gizarteak bilakaera desberdina izan zuen. Giza portaera gidatzen duten funtsezko balioak, gizabanakoaren iraupen soilean oinarritzen ziren.

Bizimodu basati hartan, bizikidetza baketsuaren zantzurik aurkitzea

ezinezkoa zen.

Alde batetik bestera ibili ondoren, galdu egin zela konturatu zen, eta bidaiatzeko makina non zegoen ezin zuen gogoratu. Itzalen artean ezkutatuta, aurrera jarraitu zuen, beste hiritarrak saihestuz. Orduan, kasualitatez edo patuak horrela nahi izan zuelako, poligono handi batera iritsi zen, eta bertan, laborategia aurkitu zuen. Jakin-minak zuhurtzia gaindituta, barrura sartu zen. Inork ez zion eragozpenik jarri, baina bulegoak garbitzen ziharduen agureak, buruan erratz kolpeak emanez, urrezko erlojua kendu nahi izan zion.

Agure erasotzailea ahulki batera lotu eta laborategi barrura sartu zenean, ulertu zuen zergatik inork ez zion ezer galdetu. Aurrez aurre zeukan gizonarekin nahasiko zuten ziurrenik, alegia, dimentsio hartako bere kopiarekin. Doktoreak, irribarre eginez, besoak zabaldu zituen ezezagunarekin adiskidetzeko asmoz, baina hark ukabilkada gogor bat emanez erantzun zion, sudurra hautsiz. Ondoren, mikroskopio bat hartu zuen doktorea errematatzeko asmoarekin, baina honek kolpea saihestea lortu zuen, eta ahal bezain azkar handik ihes egin zuen. Antza denez, kopia maltzurra atzetik ibili zitzaion luzaro, baina doktoreak garaiz lortu zuen makina zegoen tokira iristea, eta bere errealitatearen lasaitasunera itzuli zen berriro. Koadernoak ez zuen beste oharrik; azkenak hilketaren bezperako data zuen.

Goizeko zazpiak ziren eta inspektorea neskez lehertuta zegoen, baina

istorio harrigarri hura irakurri ondoren, loak hartzea asko kostatuko zitzaion. Hala ere, pixka batean oheratzea erabaki zuen.

Ohean etzan eta berehala ideia bat bururatu zitzaion. Doktoreak bere egunkarian idatzitakoa egiazkotzat jotzen bazuen, kasu hartarako azalpen bakarra zera zen, bisitaturiko azken errealitatearen kopia gaiztoak, nolabait, ate inter dimentsionala zeharkatzea lortu zuela gure errealitatera iristeko, eta ondoren, doktorea hiltzeko. Horrek gauza asko azalduko lituzke. Hilketaren eszenan aurkitu zituzten hatz-markak ez ziren doktorearenak bakarrik, harenak eta haren kopiarenak baizik; baina berdin-berdinak zirenez, poliziak ezin izan zituen bereizi. Gauza bera gertatzen zen odolarekin. Laborategian barreiatutako mota bereko gehiegizko kantitate hura, genetikoki berdin-berdinak ziren bi pertsonena zen.

Eta azkenik, barrutik itxitako laborategiko atearen misterioa zegoen. Hura zabaldu gabe ezinezkoa zirudien barrura sartzea, baina orain inspektoreak bazekien beste modu bat bazegoela. Gogoratzen zuenez, laborategira joan zenean, makina piztuta zegoen eta haren atea zabalik aurkitu zuen.

Zalantzarik gabe, horrela lortu zuen hiltzaileak laborategian sartzea, gure doktorea hiltzea, eta, ondoren, bere dimentsiora itzultzea, inolako aztarnarik utzi gabe.

Biharamunean inspektorea laborategira joan zen, eta denbora luzea eman zuen krimenaren eszena berrikusten ari zela simulatzen, bakarrik egotea lortu zuen arte. Une hori aprobetxatuz makinan sartu zen, eta dena karta bakarrera jokatu zuen etengailu gorriari eragin zionean. Ate inter

dimentsionalak zabaldutako azken errealitatera eramango zuela espero zuen. Zorionez, edo hala behar zuelako, doktorearen kopia gaiztoa bizi zen dimentsioan lurreratu zen. Koadernoaren irakurketari esker, errealitate hartako arriskuak ezagutzen zituen, eta kontu handiz ibili zen laborategira iritsi zen arte.

Seguruenik hiltzailea han egongo zen, baina aurkitzen zuenean, ez zeukan garbi zer egin behar zuen.

Ezin zuen gure dimentsiora ekarri hura epaitzeko, aparatua pertsona bakarra eramateko gai baitzen. Era berean, ezin zuen dimentsio hartako agintarien esku utzi, ziur aski kopia gaiztoarekin elkartu eta bere aurka joango lirakeelako. Leku hartan justiziaren kontzeptua oso bestelakoa zela bazekien.

Lehenbizi, hiltzailea harrapatzea zen garrantzitsuena, eta ondoren, harekin zer egin pentsatuko zuen.

Laborategira iritsi zenean, bertara sartzeko izan zuen erraztasunari susmo txarra hartu zion. Atea zabalik zegoen, eta doktorearen kopia, bizkarra emanda, hainbat probetaren edukia nahasten ari zen.

Inspektoreak eskuak jasotzeko agindu zion, eta kopiak astiro biratu zuen burua besoak altxatuta zituela.

Lasaiegi zegoela iruditu zitzaion inspektoreari, bere zain egon balitz bezala. Orduan, atzetik zetorren oin-hotsa entzun zuen. Azkar jiratu zen,



baina buruan kolpe gogor bat jaso eta konortea galdu zuen.

Esnatu zenean aulki bati lotuta zegoen, eta bere aurrean, doktorearen kopia gaiztoa, eta ispilu baten barrutik ateratakoa zirudien bere kopia zeuden. Biek barre egiten zuten, eta makina interdimentsionalarekin egingo zituzten gauzez hitz egiten ziharduten. Inspektorea larritu egin zen, bere kopia maltzurak gure dimentsioan egin zitzakeen gaiztakerietan pentsatu zuenean. Era guztietako maltzurkeriak eginda bere izen ona guztiz zikinduko luke, eta justiziaren indarrek inguratzea lortuko balute, makina erabiliaz bere dimentsiora itzuliko litzateke. Orduan edozein azalpen ematea alferrikakoa litzaioke; horrelako istorioa inork ez lioke sinetsiko erretiratzeko urte gutxi batzuk falta zitzaizkion inspektore zahar bati. Auzitegi batek ere ez luke onartuko beste dimentsio bateko kopia gaiztoari buruzko azalpena. Egoerak itxura oso txarra zeukan, eta kasu hark inspektorearen azkena izan zitekeela zirudien.

*Zigor Egia Lejardi Eibarren jaio zen 1973an eta gaur egun Elgoibarren bizi da. Enpresa ikasketak egin zituen Bilbon eta Alcalá de Henaresko unibertsitatean kontu-ikuskaritzako master bat atera zuen. Finantza-aholkularia izan zen hamabi urtez, eta gero Administrazio Publikora egin zuen jauzi. Gipuzkoako hainbat udaletan kontuhartzaile aritu ostean, egun Donostiako Udaleko diruzaina da. Kirola, irakurketa eta idazketa ditu zaletasunak eta literatur lehiaketa askotan finalista izan da.*



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza

Calibre .38



• 38